

**LEHEN EUSKO JAURLARITZA ERATU ZENEKO 80. URTEURRENA  
CONMEMORACIÓN 80 ANIVERSARIO DEL PRIMER GOBIERNO VASCO**

2016-10-07 Gernika 07-10-2016

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Garaikoetxea, Ardanza, Ibarretxe, Lopez lehendakariok, herri agintariok, sailburuok, jaun andreok, egun on.

Asaben gomutaz elkartu gara Gernikako Aritzaren azpian. Hemen, duela 80 urte, euzko-lur gainean, Jose Antonio Agirre Lehendakariak zin egin zuen eta Eusko Jaurlaritza jarri zuen abian. Aitaren etxea, harriz harri oinarritu eta eraiki.

Gaur, garai zail haietan hartutako erabaki hura aitortzen dugu. Herri honen arima gorpuzteko hartutako bidea jorratzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu.

Agirre Lehendakaria gure izaeraren ispilua da. Kultura, hizkuntza, nortasuna duen Herri baten ispilu. Jaurlaritzaren bidez, Gerran, Erbestean edo Demokrazian, hazten den Herri baten ispilu. Pertsona oinarri eta ardatz duen gizarte anitzaren ispilu.

Lehen Eusko Jaurlaritza izan zen gure Herria gorpuztu zuena. Aitaren etxea defenditu, oinarritu, egokitu eta indartu. Agirre Lehendakariak eguzki-lorea jarri zuen gure Aitaren etxean. Bizirik jarraitzen duen Erakundetzearen hasiera zor diogu.

En esta Sala de Juntas, hace 80 años y hoy, compartimos los valores positivos y universales que representó el Lehendakari José Antonio Agirre.

En la Gernika arrasada por la ignominia de la violencia y el terror, defendemos la convivencia, los derechos humanos y la paz. Valoramos la visión humanista de la vocación pública, el compromiso con el Pueblo, la atención a las personas, la solidaridad. Bajo el Árbol de Gernika, compartimos el valor de diálogo, el pacto y la lealtad a la palabra dada.

Agirre puso en marcha un Gobierno asentado en valores humanistas y éticos. Entregado a la causa de la libertad y la democracia. Un buen Gobierno, ejemplo de dignidad.

Hoy conmemoramos un momento clave en la historia de nuestro Pueblo; que dio comienzo a la institucionalización de Euskadi. Reconocemos la capacidad del Gobierno y de todo un Pueblo para resistir en momentos dramáticos. Su compromiso social, actitud innovadora, visión internacional y la voluntad de participar en la construcción de una nueva Europa.

El tesón por mantener el Gobierno en el exilio y viva la llama del Pueblo Vasco; actitud clave para reanudar el Autogobierno en Democracia. Su apuesta por el entendimiento y la lealtad mutua.

Un Gobierno plural, entre diferentes, un modelo para avanzar desde la colaboración y el acuerdo. Un espíritu, tan necesario hoy en Euskadi, como entonces.

Akordioa izan zuen oinarri Jaurlaritzak eta adostasunaren bidetik gobernatu zuen. Akordio anitza, ezberdinen artekoa, agintearekin leiala.

Programa sendo baten bidez gidatu zuen bete beharra: Pertsona ardatza eta gizarte oreka. Elkarriketa eta elkarlana. Euskadiren Erakundetzea. Demokrazia eta askatasuna. Esan eta izan.

Etorkizunari begira eratu zen Eusko Jaurlaritza. Bere ereduari eman diogu jarraipena: balio sendoetan oinarritutako Gobernu, Gizarte eraikuntza eta Aberri eraikuntza uztartzen duena. Hau da gure Herriaren etorkizuna.

Todo un Gobierno al servicio de todo un Pueblo. La mirada puesta en el futuro: la visión y la misión de poner en marcha la construcción del País.

Nació en plena Guerra, tuvo que rehacerse en el exilio, manteniendo siempre la resolución de perdurar en el tiempo.

Nuestra vocación compartida sigue siendo servir al Pueblo y construir País. Actualizar la naturaleza pactada del Autogobierno vasco, el procedimiento que conecta con nuestra tradición foral y facilitó la experiencia estatutaria hace 80 años. Consolidar el sistema de Autogobierno propio y singular del Pueblo Vasco, fortalecer Euskadi, seguir participando en la construcción de Europa y proyectar Basque Country en el mundo.

Harriz harri Herri. Aitaren etxeak eusko lur gainean zutik jarraitzen du.

Gaur, apal apalik, Gernikako Aritzaren azpian, euskal asaben gomutaz, Demokraziaren etxean, Herri honek Agirre Lehendakaria eta Eusko Jaurlaritza omentzen du.

Agur eta ohore gure izaeraren ispiluari, Aitaren etxearen eguzki-loreari, gure etorkizunaren gidariari.

Lehendakariok, sailburuok, herri agintari eta euskaldun guztiok: Elkarrekin Euskadiren arima indartzen eta zabaltzen jarraituko dugula agintzen dugu.

Izan zirelako gara eta garelako izango dira.

Eskerrik asko.